

Informazio

# Agerkaria

216

2013ko  
urtarrila  
enero  
2013

# Boletín

Informativo



Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatu  
Bazkun  
Ohoretsua

Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya

## BITARTEKARITZA: ERRONKA BERRIAK

# Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M<sup>a</sup> del Prado Guzmán López  
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo  
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte  
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva  
Mutualista desde 2008

## Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

Sin ánimo de lucro	<b>Todos los beneficios para el mutualista<sup>1</sup></b>
Gestión independiente de las inversiones	<b>Persiguiendo siempre la máxima seguridad</b>
Rentabilidad para tus ahorros	<b>4,5% en 2012 + complemento a final de año<sup>2</sup></b>
Tus seguros de vida a menor coste	<b>Gracias a nuestra especialización</b>
Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros	<b>Con nuestro Club Privilegia</b>
Disfruta de productos exclusivos para los abogados	<b>De previsión complementaria y seguros personales</b>
Gestión profesional	<b>Compatible con la autogestión por los abogados</b>
Costes reducidos	<b>Estructura simple y distribución directa</b>
Tecnología	<b>Web interactiva para cualquier trámite o consulta</b>
Transparencia	<b>Información trimestral, y diaria en la web</b>

Para más información entra en  
[www.mutualidadabogacia.com](http://www.mutualidadabogacia.com)

escribe un e-mail a  
[buzon@mutualidadabogacia.com](mailto:buzon@mutualidadabogacia.com)

o llama al Servicio de Atención al Mutualista  
**902 25 50 50**

1. Los resultados de la Mutualidad revierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.  
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.

## JOSEBA ANDONI BARANDIARANEN OROIMENEZ

**J**osean joan zaigu, aspaldiko bidelaguna. Victor Ayarzaren ondoan Justizia Jauregian etorkizuna eraikitzen ari zen urteak ditugu gogoan. Gizon handia, saiatua, begirada garbi, argi eta gozoduna. Bertakoa, erroak eta ingurua maite zituena, eta aldi berean, pertsona zintzoa eta izaera zuhurrekoa. Kideekin konprometituta zegoen gizona, sindikatuaren bidez ordezkatzeko baitzituen. Protagonismorik eta irudikeriarik gabeko pertsona.

Inoiz ez da une egokia maite den pertsona bati agur esateko, baina amaiera oso azkarra denean, galeraren mina sentitzen dugu, ez dagoenaren hutsunea, eta berriro ere, gure emozioak bizitzaren iheskortasun kezkarriaren inguruan korapilatzen ditugu. Berriro ere pentsatzen dugu nola bizi ahal izango dugun pertsona batzuk egon gabe.

Eta, orduan, erantzun eroso bakarra maite gaituztenek gu begiratzeko duten moduan aurkitzen dugu. Erantzun irmoa gure buruari begiratzeko eta guran joan direnak ere badaudela aitortzea da. Oroitzapenak, elkarrekin bizitakoak, irribarrea, begirada maltzur eta konplizeak, aholkuak, besarkadak. Keinu, ezaugarri, esaldi eta jokabide heredatuak... sentimendu ugari. Eta orduan ohartzen gara inoiz ez direla erabat joango. Inoiz, gure oroimenean dauden bitartean. Eta pozik eta lasai sentitzen gara, harro egoteko modukoa eta pribilegioa baita joan direnekin denbora elkarbanatu eta gozatu ahal izatea. Eta zoriotsu sentitzen gara haien bizitzako protagonista izan garelako, nola edo hala, eta pozik gaude, berriro sufrituko ez dutela jakinda.

Josean joan egin da, baina ez gaitu utzi. Nonbait –agian gure amets eta desiretan baino ez– animalia maiteekin paseatzen jarraituko du, gure euskal mendietako baserri idilikoren batean, eta Gorbeaiko gurutzeko ikusten jarraituko du gure oroimenean lekurik gabeko, oso zoriotsu.

## EN MEMORIA DE JOSEBA ANDONI BARANDIARAN

**S**e ha marchado Josean, compañero de camino desde hace muchos años. Desde aquellos tiempos en que al lado de Victor Ayarza forjaba su futuro en el Palacio de Justicia. Un hombre grande, aguerrido, de mirada limpia, clara y dulce. Un hombre vasco, amante de sus raíces y su entorno, y como tal una persona noble y de carácter infinitamente discreto. Un hombre comprometido con sus compañeros a quienes representaba sindicalmente. Una persona alejada de protagonismos y figuraciones.



Nunca es buen momento para despedir a quien se quiere pero cuando el final es definitivamente precoz, sentimos el dolor de la pérdida, el vacío de la ausencia y volvemos a enredar nuestras emociones alrededor de la inquietante fugacidad de la vida. Volvemos a pensar cómo podremos vivir sin algunas presencias.

Y es entonces cuando las únicas respuestas confortables las encontramos en la forma en que nos miran aquellos que nos quieren. La firme respuesta es mirarnos también y reconocer en nosotros la presencia de aquellos que se han ido. Por los recuerdos, las vivencias compartidas, la risa, las picaras y cómplices miradas, los consejos, los abrazos. Algunos gestos, rasgos, frases y comportamientos heredados... muchos sentimientos. Y es entonces cuando adquirimos la certeza de que nunca se marcharán completamente. Nunca, mientras permanezcan en nuestra memoria. Y alcanzamos la alegría reveladora y curativa que nos lleva a sentir el profundo orgullo y privilegio de haber podido compartir y disfrutar el tiempo que sea, el que debía ser, el que ha sido, con aquellos que se han ido. Y nos sentimos afortunados por haber sido protagonistas, de alguna manera, de su vida y felices sabiendo que nunca más sufrirán.

Josean se ha marchado pero no nos ha dejado y en alguna parte –tal vez sólo en nuestros sueños y deseos– continuara paseando sus queridos animales, en algún caserío idílico de nuestros montes vascos y seguirá contemplando la cruz del Gorbea desde algún lugar de nuestras mentes con inmensa felicidad.



**Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatuen  
Bazkun  
Ohoretsua**  
**Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya**

**Decano / Dekanoa**  
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea**  
Ana Bermejo Arteagabeitia  
Beatriz Barquín Torre  
Ignacio Alonso de Errasti

**Colaboradores / Laguntzaileak**  
César Gallastegi Aranzabal  
Garazi Arraibi Larrea  
Jorge Marqueta Andrés  
Eduardo Ranedo Fernández  
Idoia Manzarraga Zamalloa  
Alberto Martínez Ruiz

**Fotografía / Argazkigintza**  
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>  
[elboletin@icasv-bilbao.com](mailto:elboletin@icasv-bilbao.com)

Depósito Legal / Legezko gordailua  
2.069/1987



2013ko urtarrila

## 06 **BERRIAK**

## 10 **INFORMAZIOA**

*Bitartekaritza, gatazken  
konponbiderako tresna*

*1483/2012 Errege dekretua, urriaren 29koa,  
kaleratze kolektiboaren prozedurari,  
kontratuak eteteari eta lanaldia murrizteari  
buruzko erregelamendua onartzen dituen*

## 14 **JARDUNALDIAK**

*Ikusmuga profesional berriak  
abokatutzarentzat. Bitartekaritza*

## 22 **BAZKUNeko LIBURUTEGIA**

## 24 **LEGEGINTZA BERRITASUNAK**

## 26 **KULTUR ERANSKINA**

09



13



UNA RELACIÓN  
PERFECTA  
WILLIAM TREVOR



CAPSULA



28

narrativa  
salamandra

26

29



## DOAKO JUSTIZIARAKO SARBIDE ATALASEAK FAMILIA UNITATE BAKOITZEKO

### Urteko zenbatekoak

FAMILIA UNITATEA	PERTSONA BAT	BI KIDE	HIRU KIDE	LAU KIDE	INGURUABAR BEREZIAK. FAM. UGA. MOTA
DOAKO JUSTIZIAREN ATALASEA GAUR EGUN			14.910,00 € LGS bider 2		29.821,00 € LGS bider 4
PROPOSATUTAKO DOAKO JUSTIZIAREN ATALASEA	12.780,00 € IPREM bider 2	15.975,33 € IPREM bider 2,5		19.170,39 € IPREM bider 3	31.950,65 € IPREM bider 5
<b>ALDAKUNTZA</b>	- 2.130,00 €	1.065,33 €		4.260,39 €	2.129,65 €

FAMILIA UNITATEA	PERTSONA BAT	BI KIDE	HIRU KIDE	LAU KIDE	INGURUABAR BEREZIAK. FAM.UGA. MOTA
DOAKO JUSTIZIAREN ATALASEA GAUR EGUN			1.242,52€ LGS bider 2		2.485,05 € LGS bider 4
PROPOSATUTAKO DOAKO JUSTIZIAREN ATALASEA	1.065,00 € IPREM bider 2	1.331,28 € IPREM bider 2,5		1.597,53 € IPREM bider 3	2.662,55 € IPREM bider 5
<b>ALDAKUNTZA</b>	- 177,52 €	88,76 €		355,01 €	177,5€

**LGS:**  
Lanbide arteko  
Gutxieneko Soldata

**IPREM:**  
Ondorio  
askotarako  
errenta-adierazle  
publikoa

### Hileko zenbatekoak

### Ministroen Kontseilua

## GOBERNUAK ONURADUNEN KOPURUA HANDITZEN DUEN DOAKO JUSTIZIA LEGEAREN AURREPROIEKTUA ONETSI DU

Ministroen Kontseiluak, Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministroak proposatuta, Doako Justizia Legearen aurreproiektua onetsi du. Lege horrek 1996ko indarreko legea ordeztuko du gaur egungo errealitatera egokitzeko, pilotutako esperientzia eta herri-administrazioek eta abokatuen eta prokuradoreen elkargoek egindako proposamenak kontuan hartuta.

Berrikuntza nagusi moduan gehitzen du eskubide honen onuradunak ez daitezela onuradun izan arrazoi ekonomikoengatik bakarrik; bereziki zaugarriak diren kolektiboak ere kontuan hartzen ditu.

Gobernuaren arabera, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak, hainbat epaitan, gaur onetsitako eraldaketaren espiritua jasotzen du. Modu horretan, 20/2012 ebazpenak Justizia Administrazioaren finantzaketa-sistema mistoaren bideragarritasuna aitortu zuen, zergen kargura eta "jardun judizialaren onuradun direnek ordaindutako tasen" kargura. 117/1998 epaiaren arabera, aurrekontu-eskuragarritasuna mugatua

denez, doako justizia "ezin da modu mugagabe eman"; 16/1994 epaian eskubide honen onuradun moduan aitortzen zituen "prozesuak sortutako gastuei aurre egin ezin dietenak lehen mailako beharrianak eta familiaren beharrianak alde batera utzi gabe, justiziarako sarbiderik gabe inor gera ez dadin baliabide ekonomikori kez izateagatik".

### MAILA HANDIAGOAK

Azken ebazpen horretan, Goi Auzitegiak argitu zuen lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) erreferentzia "bizirik irauteko gutxieneko maila zehazteko irizpide objektiboa bada [...], arrazoizkoa eta proportzionala, pentsatu behar da gutxieneko soldataren bikoitzari esker beharrianen eta prozedura judizial baten gastuei aurre egin ahal zaiela".

Hala ere, tasa judizialek kostu prozesualak handitzen dituztenez, egokitzen jo da orain arte indarrean zeuden mailak handitzea baliabiderik ez dutenek benetako babes judizialerako eskubidea izan dezaten. Hori dela eta, lanbide arteko

gutxieneko soldataren bikoitza (14.910 euro urtean) handitu egin da, eta orain Ondorio Askotariko Errenta Adierazlea (IPREM) bider 2,5 da, hau da, 15.975,33 euro urtean, eta bider hiru familia-unitateko kideak lau direnean (19.170,39). Eskatzaileak familia-unitatea osatzen ez badu, maila IPREM bider bi izango da.

Inguruabar bereziak, familia-inguruabarrak, osasun-inguruabarrak edo desgaitasuna dagoenean, inguruabar horri lotutako prozesuen kostuei doako justiziaz egingo die aurre. Eskubide horretara sarbidea izateko muga lanbide arteko gutxieneko soldata bider lautik (29.821 eurora) IPREM bider bostera (31.950,65) handitu da.

### BIKTIMAK

Auzitan aritzeko baliabide nahikorik ez dutenak alde batera utzita, aurreproiektuak doako justiziararen onuradun moduan gehitzen ditu genero-indarkeriaren biktimak, terrorismoaren biktimak eta gizakien salerosketaren biktimak, baita abusuen edo tratu

txarren biktima izan diren adingabeak eta desgaitasuna duten pertsonak ere. Kasu horietan guztietan, doakotasuna biktima izaera horretatik eratorritako prozesuei lotuta dago.

Orain arte, defentsa juridiko espezializatua berehala bermatzen zitzairen, baina doako justiziarako sarbideak betekizun orokorrak zituen; hori dela eta, eskubidea aitortzen ez bazitzairen, gero sortutako gastuak ordaindu behar ziren. Hala ere, aurrerantzean doako justiziaren onuradunak izango dira beti, hau da, tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

Horrez gain, salaketa jartzen den unetik bertatik edo aurretiako aholkularitzan, laguntza juridiko espezializatua izango dute. Adingabeek eta desgaitasuna dutenek adituen laguntza espezializatua izango dute. Neurri horrekin, delituen biktimei laguntzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentzarau batean ezarritako gomendioak bete eta zabaltzen dira.

Era berean, doako justiziaren onuradun izango dira ondorio etengabeak jasaten dituzten istripuen biktimak, ondorio horien eraginez ohiko jarduerara garatu ezin dutenean edo oinarritzko jarduerak egiteko beste pertsona ba-

tzuen laguntza behar dutenean. Horri esker, jasandako kalte pertsonal eta moralengatik dagozkien kalte-ordainak eskatu ahal izango dituzte, eskubide honen onuradun izanda.

#### LANGILEAK ETA ELKARTEAK

Aurreproiektuaren arabera, Gizarte Segurantzaren Sistemako langileek eta onuradunek doako justiziarako eskubidea aitortuta izaten jarraituko dute lan arloko lehen auzialdian. Erregutze-errekurtsua egiten dutenak langileak direnean, oso gutxitan den arren, ezarritako tasan %60ko salbuespena izango dute.

Gurutze Gorriak, desgaitasuna duten pertsonak babesten dituzten elkar- teek, sindikatuek, langileen ordezkariak eta Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileek doako justiziarako eskubidea izango dute haien interesak defendatzeko akzioak egikaritzen dituztenean.

#### PRESTAZIOAK HAUTATZEA

Ministroen Kontseiluak onetsitako testuaren berrikuntza da doako justiziaren onuradunak eskubide honetan ezarritako prestazio hauetako zein lortu nahi duen. Adibidez, tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen kasuan, kasuan kasuko tasa ordaintzea saihestu ahal izan-

go dute, baina, hala nahi badute, zein abokatuk ordezkaturiko dituen hautaturiko dute, ofizioko abokatua izan gabe.

Hauek dira doako justiziarako eskubideak biltzen dituen prestazioak: aholkularitza eta orientazioa, bitartekaritza eta judizioz kanpoko beste baliabideei buruzko informazioa; abokatuaren eta prokuradorearen doako laguntza eta ordezkaritza; iragarkiak edo ediktuak doan gehitzea; tasak eta gordailuak ordaintzetik salbuestea; adituen doako laguntza; kopia, lekukotza, tresnak eta notarioen aktak doan lortzea, eta organo judizialak eskatutako muga-zergen eskubideen %80ko murrizketa.

Abokatutzak gogor kritikatu du aurreproiektua. Abokatuaren kontseilu eta elkargoak, eta abokatuak eurak aurreproiektuaren kontra ari dira. Izan ere, arauketa berria zioen adierazpenetan bertan adierazitakoaren aurka doa argi eta garbi: zerbitzua hobetuko dela adierazten da baina, gure usteetan, hobekuntza hori ez da gertatuko; are gehiago, egoerak txarrera joko du. Horrenbestez, gure ordezkaritza organoak lege berriak eta ondorengo erregelamenduak aldaketa egokiak jaso ditzaten saiatzen ari dira.

## IMQ Abogados

# Tu salud

La salud lo es todo y con IMQ tienes todo para cuidarla

Tú eres nuestra razón de ser. Por eso, tenemos para ti un seguro médico con todo lo que necesitas:

- La red sanitaria más extensa y la tecnología de vanguardia, sin esperas
- Completa cobertura sanitaria
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza desde sólo 5,13 €/mes\*
- Descuentos: 4% por pago anual y 5% para 5 o más beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

Exclusivo abogados desde  
45,04 €/persona/mes

**IMQ**  
Tu seguro médico

902 311 902 [agencia@imq.es](mailto:agencia@imq.es) [www.imq.es](http://www.imq.es)

\* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Oferta exclusiva para miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2013. R.P.S.: 143/12

## GOBERNUAK BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ERREFORMA ONETSI DU

**Ministroen Kontseiluak, Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministroak proposatuta, Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreforma-aurreproiektua onetsi zuen. Modu horretan, bermatu egingo da epaileen gobernu-organoan estamentu judizial osoa ordezkaturik egotea, jardunean dauden eta elkarte judizial bat osatzen ez duten epaileak eta magistratuak hautatzea erraztu baita.**

Testuaren arabera, Gorteek hautatuko dituzte BJKNko hoguei kideak, hiru bosteneko gehiengoz: Kongresuak 15 urtetik gorako ibilbide profesionala izan eta ospe handia duten lau legelari eta txanda judizialeko beste sei izendatuko ditu, eta Senatuak beste horrenbeste.

Aurreproiektuaren berrikuntza nagusietako baten bidez, epaileen gobernu-organoan estamentu judizial osoa ordezkaturik egotea bermatu nahi da. Hain zuzen ere, edozein epailek BJKNko kide izateko hautagaitza aurkez dezake, eta baldintza bakarria izango da zerbitzu aktiboan dauden estamentu judizialeko 25 kideren edo elkarte judizial baten abala izatea. Epaile edo elkarte bakoitzak 12 hautagairi eman ahal die abala gehienez.

Hautagaitza guztiak (eta ez 36ren zereenda, orain arte bezala) ganberetara igorriko dira, horietako bakoitzak dagozkion sei kideak hauta ditzan. Kideak izendatzerakoan, Gorteak ahaleginduko dira estamentu judizialean afiliatuen eta ez-afiliatuen artean dagoen proportzioa errespetatzen, eta gutxienez, proportzio hauek: Auzitegi Gorenetik hiru

magistratu hautatuko dituzte, hiruk 25 urteko antzintasuna baino handiagoa izango dute, lauk txikiagoa eta bi epaile ere hautatu behar dira.

Gainera, independentzia horren adibide moduan, Auzitegi Goreneko lehendakariak eta kideek ez dute ganberen aurrean agertu beharko haien eginkizunak direla eta. Hala ere, aurreproiektuan ezarritakoaren arabera, lehendakaria agertuko da Kontseiluaren eta epaitegi eta auzitegien egoerari, funtzionamenduari eta jarduerari buruz epaileen gobernu-organoak urtero prestatzen duen memoria dela-eta egindako galderei erantzuteko.

Erreformen Kontseilua berritzeko ezarritako sistemaren arabera, bermatu egiten da legean horiek ordezkatzeko ezarritako epeak atzerapenik gabe betetzea. Organo hori eratzen den egunean bi ganberetako batek hautatu ez baditu berari dagozkion kideak, Kontseilua eratuko da beste ganberak izendatutako hamar kide berriekin eta epea bete ez duen ganberak bere garaian hautatu zituen hamar kideekin. Kideak geroago izendatzen badira, haien kargua ez da luzatuko Kontseiluaren agintaldiak irauten dituen bost urte baino gehiago.

### GUZTIAK ZERBITZU AKTIBOAN

Kontseiluko kide guztiek, batzorde iraunkorra osatzen duten seiek eta BJKNko lehendakariordeak izan ezik, zerbitzu aktiboan jarraituko dute esparru judizialean edo funtzionarioen ki-

degoan edo izendatzen dituzten unean daukaten jarduera profesionalean. Arduraldi eskusiboa izango dute soil-soilik Auzitegi Goreneko lehendakariarekin batera batzorde iraunkorra osatzen duten kideek (hiru estamentu judizialekoak eta hiru legelari, ahal den neurrian, urtero berrituko direnak). Beraz, ordainsaria jasoko duten bakar-rak izango dira (goi-azitegiko magistratu baten pareko ordainsaria); gainerakoek dietak baino ez dituzte jasoko, eta dieta horiek inoiz ez dira izango arduraldi eskusiboa duten kideen ordainsaria baino handiagoak.

Auzitegi Goreneko eta BJKNko lehendakari izan daiteke bai goi-azitegiko magistratuak, kategoria horretan gutxienez hiru urteko antzintasuna baidute, bai 25 urtetik gorako esperientzia profesionala duten goi-mailako legelariak. Lehendakariak alboan izango du Auzitegi Goreneko lehendakariordea, osoko bilkurak lehenengoak proposaten duen hirukotearen artean hautatu behar duena (hautagaiak Auzitegi Goreneko magistratu kategoriakoak izango dira eta Salako lehendakari izateko betekizunak bete behar dituzte). Auzitegi Goreneko lehendakariordeak ez du osoko bilkura osatuko eta berak ordeztuko du lehendakaria goi-azitegian, kargua hutsik dagoenean, lehendakaria gaixorik dagoenean edo beste kasu batzuetan. Eginkizun hori gauzaten duten bitartean, bata zein bestea zerbitzu berezien egoera administrati-boan egongo dira (hau da, izendatu zituzten unean zeukaten plazari eutsiko diote eta kargu berrian sortzen duten antzintasuna zenbatuko zaie).

## ZINEMA ZIKLOAREN PROGRAMA “ZINEMA ETA TELEFONOA”

### *Luna nueva* (Howard Hawks, 1940)

Howard Hawks eta Cary Grant egonda, badakigu ez garela aspertuko. Kazetaritzari buruzko inoizko film handiena. Barkatu, kazetaritzako zinizismoari buruzkoa. Manipulazioak, gezurra, eskandaluak, albistea edozein preziotan film bizkor batean. Film zoro honetan, erromantizismo itsuarentzat ere badago lekua. Telefonoak ezohiko agerpena izango du.

### *Detour* (Edgar G. Ulmer, 1945)

Kalitatezko zinema beltza. B serieko klasikoa. Edgar G Ulmer zuzendaria ohituta zegoen aurrekontu txikiekin lan egitera, baina beti jakin zuen aktoreengandik, dekoratuetatik eta eszenaratzetik ahal zuen guztia ateratzen. Zazpi egunetan grabatutako film gutxi izango zuten horrenbesteko eragina zinemazaletasunean. Eskua jaso dezala filma ikusi eta telefonoaren eszena gogoratzen ez duenak.



### *Voces de muerte* (Anatole Litvak, 1948)

Ohean ahuldua dagoen emakume batek, telefonoko lineak gurutzatzeari esker, gau horretan hilketak bat gertatuko dela entzuten du. Apurka-apurka ohartuko da agian biktima bera dela. Telefonoa da kanpoarekin duen lotura bakarra. Oso klaustrofobikoa. Telefonoa protagonista bakarra izanda egin den filmik onena.

### *Crimen perfecto* (Alfred Hitchcock 1954)

Telefonoaren inguruan egiten den miniziklo batean film hau beti egongo da. Zinemaren historian irudi ikoniko batzuk daude, hala nola Casablancako gabardinak, “Con la muerte en los talones” filmeko ur-hegazkinak, “El tercer hombre” filmeko noria, eta Grace Kelly telefonoari erantzuten bera bakarrik ez dagoen gela batean. Azken batean, suspensearen maisuaren beste film bikain bat ikusteko aitzakia da.

### *Todos los hombres del presidente* (Alan J Pakula, 1976)

Pantailan telefonoa zenbat aldiz agertzen den kontuan hartuko bagenu, film honek ziurrenik zikloko saria irabaziko luke. Dokumentalaren itxuran grabatuta dago, eta Watergate tramaren gorabehera guztiak erakusten ditu. Woodward eta Bernstein ausartek Nixon botoretik kentzea lortuko zuen eskandalua argitara ateratzeko zeharkatu behar izan zituzten estolda guztiak irudikatzen dira. Berrito ere telefonoa protagonista izango da. Internet bi hamarkada geroago iritsi zen.



# BITARTEKARITZA GATAZKAK KONPONTZEKO LANABES MODURA

Azkenaldian bitartekaritza bultzatu da gatazka judizialak konpontzeko alternatiba moduan. Bitartekaritza gatazka konpontzeko eredu da, eta *“hirugarren”* neutral eta inpartzial batek esku hartuta, bi pertsonari edo gehiagori laguntzen zaie gorabeheren jatorria ulertzen, gertatutakoaren arrazoiak eta ondorioak ezagutzen, ikuspegiak aurrez aurre jartzen eta gatazka konpontzeko konponbideak aurkitzen.

Bitartekaritza gatazka ebazteko bide osagarria da. Baliozko formula da eta zuzenbideko estatuak onartzen du. Justiziarren ikuskerara berrira egokitzen da eta Justizia Administrazioa modernizatzeko pieza esanguratsua da.

Hasieran, bitartekaritza familia-harremanen esparruan erabiltzen zen batez ere, eta, ideia horren babesean, legeria autonomikoak sortu ziren bitartekaritza familia-gatazka ebazteko erreminta eraginkor moduan aurkezteko.

Ildo horretatik, gure autonomia-erkidegoan, Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legea onetsi zen. Hori dela bidez, Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritza Zerbitzua ezarri zuen eta gaur egun indarrean dago oraindik. Nahiko arrakasta lortu du, izan ere, azken datuen arabera, 2012ko lehen seihilekoan, hamar bitartekaritza-prozesutik zortzitan akordioa lortu zen eta horrela ez zen auzi-prozedurarik abiatu. Horrek agerian uzten ditu bitartekaritzaren aukerak.

Ondoren, bitartekaritza familiatik kanpoko beste esparru batzuetara hedatu da. Zigor arloko gaietan, bitartekaritza gero eta gehiago erabiltzen dute alderdiek zein auzitegiek. Barakaldoko epaitegiak aitzindariak izan ziren bitarteko hau erabiltzen 2007. Urtearen inguruan, eta ondoren gainerako barruti judizialek hedatu da. Orain ez da arraroa zigor prozedura batean ofizioko epaitegiak proposatzea gatazka bitartekaritzaren bidez ebatzi daitekeela.

Bitartekaritza erreminta eraginkor eta beharrezko moduan bultzatzen ari dira hainbat erakundetatik, hala nola Botere Judizialaren Kontseilu Nagusitik. Azken horren helburuetako bat bitartekaritza sustatzea da, “bitartekaritzaren kultura” sortzen laguntzeko. Modu horretan, epaileek erremintak izango dituzte gatazka konpontzeko gero eta konplexuagoa den mundu honetan, eta legea zorrotz aplikatzen kanpo egoerei aurre egiteko baliabideak izango dituzte.

Ildo horretatik onetsi da Gai zibil eta merkataritza gaietako bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legea. Ho-

rren bidez, mota horretako gatazka bidez horretatik ebatzi daitezke eta bitartekaritza amaitu arte prozedura judizialak eten daitezke. Akordioa lortzen bada, gaiaren gaineko eskumena zuen epaitegiak akordioa homologatuko du eta akordioa betearazteko eskuduna izango da.

Aurrean azaldutakoaren aplikazioari begira, gure probintziako epaitegi askok bitartekaritza zerbitzua eskaintzen dute zigor, familia, eta merkataritza arloetan. Zehatz esanda, epaitegi hauek eskaintzen dituzte zerbitzu horiek:

## • MERKATARITZA ARLOA

Bilboko Merkataritza arloko 1. eta 2. zenbakiko epaitegiak.

## • ZIGOR ARLOA

Bilboko Instrukzioko 1, 3, 4, 7, 8, 9 eta 10. zenbakiko epaitegiak.

Getxoko Instrukzioko 1, 2, 4 eta 6. zenbakiko epaitegiak.

Durango Instrukzioko 1, 2, 3 eta 4. zenbakiko epaitegiak.

Gernika-Lumoko Instrukzioko 1, 2, 3, eta 4. zenbakiko epaitegiak.

Barakaldoko Instrukzioko 1, 3 eta 4. zenbakiko epaitegiak.

Balmasedako Instrukzioko 1. eta 2. zenbakiko epaitegiak.

Bilboko Zigor arloko 1, 4, 5 eta 6. zenbakiko epaitegiak.

Barakaldoko Zigor arloko 1. eta 2. zenbakiko epaitegiak.

## • FAMILIA ARLOA

Bilboko Lehen Auzialdiko 5 eta 14. zenbakiko epaitegiak.

Barakaldoko Lehen Auzialdiko 5. zenbakiko epaitegia.

Durango Instrukzioko 1. zenbakiko epaitegia.

Balmasedako Lehen Auzialdiko 2. zenbakiko epaitegia.

Beraz, argi dago Bizkaiko epaitegi gehienetan bitartekaritza-zerbitzuak eskaintzen direla eta zerbitzu hori egunean-egunean aurrera egiten ari dela. Gure esku dago bitartekaritza horren mekanismoa eta ondorioak bezeroei azaltzea.

# 1483/2012 ERREGE DEKRETUA, URRIAREN 29KOA, KALERATZE KOLEKTIBOAREN PROZEDURARI, KONTRATUAK ETETEARI ETA LANALDIA MURRIZTEARI BURUZKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DITUENA

**Errege Dekretu hau joan den urriaren 31n jarri zen indarrean. Hori dela bide, martxoaren 8ko ESS/487/2012 Agindua indargabetu zen. Agindu horretan zehazten ziren otsailaren 12aren ostean abiatutako prozeduretan martxoaren 8ko 801/2011 Errege Dekretuaren zein manuk jarraitzen zuten indarrean.**

## KALERATZE KOLEKTIBOA

Nabarmentzeko edukien artean, erregelamenduak kaleratze kolektiboaren prozedura arautzen du. Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura hau aplikatu ahal izateko ukitutako langileen kopurua zehazten da.(1. art.)

Kaleratze kolektiboaren prozedura hasten da enpresak langileei (ordezkarien bidez) eta lan-agintaritzari aldi berean jakinarazita kaleratze kolektiboa egingo dela.

Errege Dekretuan ezarri da zein izango den komunikazio horien edukia eta enpresak kaleratze kolektiboa hautatzeko alegatu duen arrazoa egiaztatzeko gehitu behar duen dokumentazioa. Errege Dekretuaren 2-6. artikuluetan dokumentazioa zehazten da. Dokumentazio hori desberdina izango da oinarriak arrazoi ekonomikoak edo arrazoi teknikoak badira, antolaketari edo ekoizpenari lotutakoak badira.

Hurrengo artikuluan kontsulta-aldiari dagokiona garatzen da. Bilerak kopuru minimoa arautzen da, enpresako langile kopuruaren etab ileren arteko epeen arabera. Hala ere, izapidea egintzat hartuko da alderdien artean akordioa lortzen denean. Horrez gain, balizko gizarte-neurriak eta langileak berriro kokatzeko plana ezarri dira, Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta kaleratze kolektiboak 50 langiletik gora ukitzen baditu. Plan horrek ukitutako langileei bermatu behar die, batez ere adin handiena dutenei, gutxienez 6 hilabetez berriro kokatzeko ekintzak egingo direla etengabe, planean ezarritako neurrien arabera.

Kontsulta-aldian lan-agintaritzak esku hartu behar du ez bakarrik oharrak edo gomendioak proposatzeko, bitartekaritza eta aholkularitza teknikoa ere eskaini behar ditu kaleratze kolektiboak eragindako arazoetarako (10.art.).

Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailetzaren txostenean, enpresak kaleratze kolektiboari lotuta egindako komunikazioaren gaiak aipatu behar dira, baina baita kontsulta-aldia betetzeari buruzko gaiak eta kaleratutako langileak hautatzeko kontuan hartu diren irizpideak ere, enpresak bereizkeriarik egiten ez duela egiaztatzeko.

Langileak berriro kokatzeko planaren edukia eta akonpainamenduko gizarte-neurriak ere kontrolatu behar ditu (11. art.). 1483/2012 Errege Dekretuaren 12. artikulutik aurrera prozedura amaitzea arautzen da, behin kontsulta-aldia amaitu eta gero, enpresak kaleratze-erabakia komunikatzearen bidez, langileen ordezkarietara eta lan-agintaritzari.

Une horretatik aurrera, enpresaburuak ukitutako langileei kaleratzeak jakinarazi ahal izango dizkie prozedura kolektiboa erabiliz, kaleratze kolektiboaren prozedura hasi zenetik 30 eguneko gutxienezko epea eta kolektibo jakin batzuek irauteko lehentasunak errespetatuz.

## LAN KONTRATUA ETETEKO ETA LANALDIA MURRIZTEKO PROZEDURA

Ukitutako langile kopurua edozein izanda ere aplikatzen da, betiere, inguruabar hauek betetzen badira:

-Lan-kontratua etetea. Langileak lanaldi osoetan, jarraituetan edo txandakakoetan garatzen zuen jarduera amaitu egiten da gutxienez lanaldi arrunt batean.

-Lanaldia murriztea. Hori gertatzen da eguneko, asteko edo urteko lanaldia %10 eta 70 bitartean murrizten denean.

# ZIGOR KODEAREN ERREFORMA IRUZUR FISKALAREN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAN ETA BESTE BATZUK

**MARIANA ALGORTA**

**Barrilero y Asociados bufeteko abokatua**

2013ko urtarrilaren 17an, Zigor Kodea eraldatzen duen 7/2012 Lege Organikoa indarrean jarri da. Legearen atarikoan esaten denez, helburua sarrerak eta gastu publikoak kontrolatzeko tresnen eraginkortasuna hobetzea eta iruzur fiskalaren eta Gizarte Segurantzaren iruzur egitearen aurka borrokatzea da. Modu horretan, badirudi esparru publiko eta pribatuan iruzurraren aurka sortutako gizartealdarriari zein Administrazio Publikoak krisialdi honetan behar duen likidezari erantzuna eman nahi zaiola.

Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egindako iruzurraren aurkako borrokari dagokionez, delitu fiskalak zein Ogasun Publikoari iruzur egiteak 120.000 eurotik gorakoa izaten jarraitzen duen arren, Gizarte Segurantzari egindako iruzurrean, arau-haustea delitu izateko zenbatekoa 120.000 eurotik 50.000 eurora murriztu da lau urtetan. Beraz, Gizarte Segurantzaren kuotak zifra horretatik gora ez ordaintzea, lehen arau-hauste administratibo huts bat zen, baina orain delitua da eta bost urtera arteok espetxe-zigorra eta isuna izan ditzake, delitu fiskalaren moduan.

Horrez gain, diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko ezintasuna eta onura edo pizgarri fiskalez edo Gizarte Segurantzakoez gozatzeko eskubidea ez izatea

ezarri da epe jakin batzuetarako (zehapen hori delitu fiskalerako ezarrita zegoen, baina ez Gizarte Segurantzari egindako iruzurrerako; hori disuasio-osagai garrantzitsua izan daiteke delitua egitea saihesteko).

Horrez gain, erreformaren arabera, espetxe zigorra sei urtera arte handituko da (orain arte bost urtekoa zen) eta, modu horretan, tipo astunduaren preskripzio epea hamar urtera arte luzatzen da

(orain arte bost urte ziren) kasu hauetan: zenbateko handia dela-eta bereziki larritzat hartzen diren jarrera jakin batzuk (600.000 euro iruzur fiskalerako eta 120.000 euro Gizarte Segurantzari egindako iruzurrerako); erakunde edo talde kriminal baten barruan egitea, edo erabilitako pertsonak, sozietateak edo paradisu fiskalak direla-eta iruzurrak jazartzea zaila denean. Horrela, saihestu egin nahi da iruzur-azpijoko konplexueneren ikerketa eta jazarpena zigorrik gabe geratzea, orain arte gertatu ahal zen bezala, kasu batzuetan behar den bestekoa ez zen preskripzio

epea igarotzeagatik.

Gehitu den beste berrikuntza bat, Europar Batasunetik eskatutakoa, zigor-prozedura bat hasteagatik administrazioak tributu-zorra edo Gizarte Segurantzako zorra likidatu eta kobratzeko jardunak ez gelditzeko arau orokorra da. Asmoa likidezia lortzea bada, neurri horri esker, administrazioak egon dagoen zorra kobratzeko dituen aukerak handitu egiten dira –Gallardón ministroaren esanetan, zorra 600.000 milioi eurokoa da–.

Baina zorraren likidazioa zigor prozesuan erabakitzen den horretara doitu behar dela ezarrita dagoenez, segurtasunik eza juridikoa sortzen ari da, zorra bi bide desberdinetan zehazten baita, eta askotariko irizpide, prozedura eta baliabideak aplikatzen baitira.

Ildo horretatik, nire ustez, zigor arloko epaile batek tributu-zor bat zehazteko arlo fiskalean nolabaiteko espezializazioa behar da eta gaur egun ez dago horrelakorik. Izan ere, zigor auzitegietan ez dira eztabaidatzen zein kontzeptuk osatu edo txikiagotzen dituzten tributu-kuotak. Ez litzateke arrazoizkoa izango epaileak mota honetako delitu ekonomikoetan espezializatzea, fiskaltzan egin den bezala?

Iruzur fiskalaren azpijokoen jazarpenari dagokionez, arauketa berriari esker, salaketa jar daiteke iruzurraren gutxieneko kopurura iristen denean. Horri esker, zigor prozedura ireki daiteke urtebete igaro baino lehen (orain arte ezin zen), aitortena hamabi hiletik beherakoa denean, baina arriskua dago zigor prozesua irekitzeko urte amaieran doikuntzak egin ahal direnean iruzurraren gutxieneko kuotara iristea saihesteko. Zigor prozesua ez da arinegi irekitzen, arau-hauste penala saihesteko doikuntzak egiteko aukerak badaude oraindik? Itxuraz ez zen gehiegizkoa urtebete igarotzea itxarotea, kostua zigor prozesu bat irekitzea eta ixtea zenean.

Argitu egiten da aitortpenak edo autolikidazioak edo kotizazio-agiriak aurkezteak bakarrik ez duela iruzurra salbuesten, iruzur hori beste egitate batzuen bidez egiaztatzen bada. Ondo. Badirudi ohar hori guztiz beharrezkoa izan dela, auzitegietan askotan alegatzen baitzen defentsa moduan dokumentu haiek aurkezten direnean ez dagoela iruzurrik, ez baitago Administrazioari ezer ezkutatzeko edo engainatzeko asmorik (ez dugu ahaztu behar horiek doloeko delituak direla); ez zen baloratzen aurkeztutako agiriak egiazkoak eta osatuak ziren edo zorra benetan ordainduta zegoen.



Erregularizazio fiskalari eta Gizarte Segurantzakoari dago-kienez, asko sustatu da; zor osoa garaiz ordaintzen bada, delitua (tipo penala) ez da gertatzen. Horrela, erregula- riazioa, absoluzio-aitzakia izan beharrea, egitate zeha- garriaren osagai negatibo bihurtu da, eta horrek ondorio bereziak ditu dirua zuritzearen delituan. Baina “zor osoa” ordaindu behar da, errekarquak eta berandutze-interesa- sak barne hartuta, eta “garaiz”, hau da, Administrazioak egiaztatze-jardunak hasiko dituela jakinarazi aurretik edo salaketa edo kereila aurkeztu aurretik edo Fiskaltzak edo auzialdiko epaileak eginbideak hasiko dituela modu for- malean jakinarazi aurretik.

Zalantzarik gabe, erregulariza- zio berritua Administrazioak behar duen likidezia lortzeko eta biltze-eginkizuna bete- tzeko. Zorra garaiz ordaintze- a, zigor erantzukizunetik salbuesteaz gain, zigorra arin- tzeko arrazoiak ere bada, zigor prozesua hasi ondoren egiten denean, erruztatu gisa zitazio judiziala jaso eta lehenengo bi hilabeteetan egiten denean. Horri esker, zigor prozesua hasi aurretik erragularizatzeko denborarik izan ez duten “atzeratuei” zigorra murrizteko (5 urteko espetxealditik 3 hilabetera jaitsi daiteke). Eta ez da ahaztu behar zitaziotik bi hilabete igaro ondoren zorra ordaintzen dutenen kasuan kaltea konpontzearen aringa- rriak eragina duela zigor erantzukizuna aldatzeko inguru- bar moduan. Azken finean, zorraren ordaintzeta ondore onuragarriak ditu beti iruzur bat egiten duenarentzat: zi- gorretik salbuestea edo zigorra arintzea.

Beste berrikuntza garrantzitsu bat delitu berri bat sartzea da. Zigortu egiten dira Gizarte Segurantzaren Sistemako prestazioak iruzurrez lortzea, norberarentzat edo beste batentzat, zein prestazioak modu bidegabean luzatzea eta beste batzuei ematea, eragindako akats baten bidez, eta Administrazioari kalte bat eraginez.

Egitatearen larritasunari doitutako zigorra finkatu da: hiru urtera arteko espetxe-zigorra, kasurik larrienetan sei urte- ra arte iritsi ahal dena (50.000 eurotik gorako zenbatekoa, erakunde edo talde kriminala, tartean jarritako pertsonak edo paradisu fiskalak). Oso larriak ez diren kasuetan, isuna arintzea ezarri da, parekotik seikoitzera. Arazoa izango da zehaztea kasu bakoitzean zein den zenbatekoa edo erabi- litako bitartekoa edo zein diren “larritasun berezirik” ez duten egilearen inguruabarrak. Adibidez, argi dagoela di- rudi, langabeziaren ondoriozko prestazio bat hilabete ba- tez, 800 euro, engainuaren bidez lortzen duenari ez zaiola espetxe-zigorra ezarriko. Baina 10.000 euro badira? Edo beharizan larriak dituen pertsonak 30.000 euroko iruzu- rra egin badu eta Administrazioak ordaintzeta akats argia egin badu? Non ezarriko dira mugak? Auzitegieta- ko kasuistika mugatuko ditu jarriren larritasuna eta horietara doitutako zigorrak, eta horrek, berriro ere, segurtasunik eza juridikoa sortuko du.

Iruzur fiskalaren eta Gizarte Segurantzarekikoan bezala, iruzur honetan ere prestazioa berriz ordaintzeari mesede egiten zaio (horrek dakarren interesarekin) salbuespena edo zigorra arintzeko; arau orokor moduan, prestazioa berriz ordaintzeko administrazio-bidea ez da gelditzen zi- gor prozedura irekita, eta adierazitako zigorrez gain, diru- laguntzak edo onurak lortzeko ezintasuna ezartzen da, le- hen adierazitako moduan.

Diru-laguntzen iruzurrari dagokionez, delitutzat hartze- ko zenbatekoari eutsi zaio (120.000 euro, urte naturalari lotuta), eta, berriro ere, berriz ordaintzeari mesede egin zaio zigorretik salbuestea edo zigorra arintzea lortzeko, Administrazioarekin ekintza gelditu gabe.



Langileen eskubideen aurkako delituei dagokionez, errefor- maren bidez tailer klandestio- noak eta enpresen ondoren- gotzako iruzurra suntsitu nahi dira, delitu berri sartu baita: langileen multzo bat erabi- tzea eta horiek dagokien Gi- zarte Segurantzaren sisteman ez sartzea edo lan egiteko be- harrezko baimena ez lortzea hala behar duten atzerritarren kasuan.

Neurri horrek guztiz egokia dirudi; izan ere, saihestu egin nahi du, batetik, Gizarte Se- gurantzaren arloan langileei egokitu ahal zaizkien eskubi- deak ukatzea, eta, bestetik, enpresa-lehia eta -ekimena desitxuratzea. Hori dela eta, espetxe zigorra sei urtera arte handitu da, eta delituaren preskripzioa, hamar urtera arte.

Amaitzeko, gardentasunari eta aurrekontu-zorroztasunari lotutako neurri berriei dagokionez, tipo penal berria sartu da: zigortu egiten da erakunde publikoaren egoera ekono- mikoa erakusten duten kontabilitatea, dokumentuak edo informazioa faltsutzen duen funtzionarioa, erakunde horri kalte ekonomikoa eragiteko moduan egiten denean. Delitu berri hori sartzea neurri egokia da, eta sozietate baten administrazioaileak egindako kontabilitateko faltsutzearen delitu sozietarioarekin bat dator. Hala ere, harrigarria da kasu batean eta bestean zigor desberdinak daudela. Faltsutzea funtzionario batek egiten badu, zigorra 10 urtera arteko desgaitzeta eta hamabi eta hogeita lau hilabete bitarteko isuna da, baina sozietate bateko administrazioaile batek egiten badu, hiru urtera arteko espetxe zigorra (!) eta sei eta hamabi hilabete bitarteko isuna ezarri da. Zer- gatik dago espetxe zigorra partikularrarentzat eta ez fun- zionarioarentzat? Ez litzateke alderantziz izan beharko?

Azken finean, Zigor Kodearen erreforma berri honekin gaur egun iruzurraren zirkulua ixteko neurriak hartzen ari direla dirudi. Ikusiko dugu zer gertatzen den hori guztia justizia auzitegieta- ko aplikatzen denean.

Bilbo, 2013ko urtarrila.

# NUEVOS HORIZONTES PROFESIONALES PARA LA ABOGACIA.

## LA MEDIACIÓN

# IKUSMUGA PROFESIONAL BERRIAK ABOKATU- TZARENTZAT.

## BITARTEKARITZA



Mercedes  
Tarrazón, Sara  
**Justicia electrónica y garantías constitucionales: Comentario a la ley 18/2011, de 5 de julio, reguladora del uso de las tecnologías de la información y la comunicación en la administración de justicia**, González de la Garza, Luis M. La Ley (Madrid)

**El proceso penal en la sociedad de la información: Las nuevas tecnologías para investigar y probar el delito**, Pérez Gil, Julio (Coord.); (Otros) La Ley (Madrid)

### HIPOTEKA ZUZENBIDEA

**Revisión del principio hipotecario de legalidad**, Calvo González - Vallinas, Rafael; Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España (Madrid)

**Subrogación y modificación de prestamos hipotecarios**, Larrondo Lizarraga, Joaquín M<sup>a</sup>; Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España (Madrid)

**Ejecución hipotecaria: Solución a tiempos de conflicto**, Salas Carceller, Antonio (Coord.); (Otros) Aranzadi (Cizur Menor)

### ERLIJIO-ZUZENBIDEA

**Tratado general de derecho canónico**, Bueno Salinas, Santiago Atelier (Barcelona)



## DERECHO FISCAL

- > **Real Decreto 1619/2012, de 30 de noviembre**, por el que se aprueba el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación. (BOE 1-12-12).
- > **Decreto Foral Normativo 3/2012, de 27 de julio**, de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por el que se modifican los impuestos sobre la Renta de no Residentes, el Impuesto sobre el Valor Añadido, los Impuestos Especiales y el Tributo sobre el Juego. (BOPV 10-12-12).
- > **Decreto Foral Normativo 6/2012, de 4 de diciembre**, por el que se establece el tratamiento tributario de la transmisión de valores en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados y en el Impuesto sobre el Valor Añadido. (BOB 10-12-12).
- > **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 163/2012, de 4 de diciembre**, por el que se aprueban los coeficientes de actualización aplicables en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre Sociedades a las transmisiones que se efectúen en el ejercicio 2013. (BOB 11-12-12).
- > **Decreto Foral Normativo 8/2012, de 11 de diciembre**, por el que se modifica la normativa del Impuesto sobre el Valor Añadido. (BOB 18-12-12).
- > **Decreto Foral Normativo 9/2012, de 11 de diciembre**, por el que se actualizan los valores catastrales del Impuesto sobre Bienes Inmuebles para el ejercicio 2013. (BOB 18-12-12).
- > **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 170/2012, de 11 de diciembre**, por el que se proroga durante 2013 la vigencia del régimen establecido por el Decreto Foral 143/2009, de 3 de noviembre, por el que se modifican con carácter transitorio las condiciones para la exoneración de garantías en los aplazamientos de deudas. (BOB 18-12-12).
- > **Decreto Foral Normativo 11/2012, de 18 de diciembre**, de actualización de balances. (BOB 28-12-12).
- > **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 181/2012, de 18 de diciembre**, por el que se modifican los porcentajes de retención aplicables a los rendimientos del trabajo. (BOB 31-12-12).

## DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

- > **Real Decreto-ley 28/2012, de 30 de noviembre**, de medidas de consolidación y garantía del sistema de la Seguridad Social. (BOE 1-12-12).

*Se deja sin efecto la actualización de las pensiones en el ejercicio 2012 y se suspende la revalorización de las mismas prevista en la normativa vigente, de modo que las pensiones abonadas por el sistema de la Seguridad Social, así como de Clases Pasivas, se incrementarán en 2013 un uno por ciento tomando como referencia la cuantía legalmente establecida a 31 de diciembre de 2012. No obstante, se incrementarán un uno por ciento adicional al previsto en los Presupuestos Generales del Estado para el año 2013 todas aquellas pensiones que no superen los 1.000 euros mensuales o 14.000 euros en cómputo anual. Estas pensiones, por tanto, se incrementarán en el dos por ciento. El dinero para hacer frente a tal pago se extraerá del Fondo de Reserva de la SS.*

- > **Ley 13/2012, de 26 de diciembre**, de lucha contra el empleo irregular y el fraude a la Seguridad Social. (BOE 27-12-12).
- > **Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre**, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social. (BOE 31-12-12).
- > **Real Decreto 1716/2012, de 28 de diciembre**, de desarrollo de las disposiciones establecidas, en materia de prestaciones, por la Ley 27/2011, de 1 de agosto, sobre actualización, adecuación y modernización del sistema de la Seguridad Social. (BOE 31-12-12).

- > **Decreto 245/2012, de 21 de noviembre**, de modificación del Decreto por el que se regula el procedimiento de actuación que deberán seguir las Diputaciones forales en materia de adopción de personas menores de edad. (BOPV 3-12-12).

## OTROS

- > **Orden HAP/2662/2012, de 13 de diciembre**, por la que se aprueba el modelo 696 de autoliquidación, y el

modelo 695 de solicitud de devolución por solución extrajudicial del litigio y por acumulación de procesos, de la tasa por el ejercicio de la potestad jurisdiccional en los órdenes civil, contencioso-administrativo y social y se determinan el lugar, forma, plazos y los procedimientos de presentación. (BOE 15-12-12).

- > **Ley 12/2012, de 26 de diciembre**, de medidas urgentes de liberalización del comercio y de determinados servicios. (BOE 27-12-12).
- > **Ley Orgánica 7/2012, de 27 de diciembre**, por la que se modifica la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal en materia de transparencia y lucha contra el fraude fiscal y en la Seguridad Social. (BOE 28-12-12).

- > **Ley Orgánica 8/2012, de 27 de diciembre**, de medidas de eficiencia presupuestaria en la Administración de Justicia, por la que se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial. (BOE 28-12-12).

- > **Ley 16/2012, de 27 de diciembre**, por la que se adoptan diversas medidas tributarias dirigidas a la consolidación de las finanzas públicas y al impulso de la actividad económica. (BOE 28-12-12).

- > **Ley 17/2012, de 27 de diciembre**, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2013. (BOE 28-12-12).

- > **Decreto Foral del Diputado General 204/2012, de 10 de diciembre**, por el que se declaran los días inhábiles para cuantos actos, trámites y recursos deban llevarse a cabo o formularse en el ámbito de la Diputación Foral de Bizkaia durante el año 2013. (BOB 13-12-12).

- > **Real Decreto 1717/2012, de 28 de diciembre**, por el que se fija el salario mínimo interprofesional para 2013. (BOE 31-12-12).

## DERECHO UNIÓN EUROPEA

- > **Reglamento (UE) no 1215/2012 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2012**, relativo a la competencia judicial, el reconocimiento y la ejecución de resoluciones judiciales en materia civil y mercantil. (DOUE 20-12-12).

## TRIBUTU ZUZENBIDEA

- > 1619/2012 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, fakturazio-bete-beharrak arautzeko erregelamendua onartzen duena (BOE 12-12-1).
- > 3/2012 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 27koa, Gipuzkoako Foru Aldundiarena, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen dituena (EAAO 12-12-10).
- > 6/2012 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 4koa. Honen bidez, baloreen eskualdaketei Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan zein Balio Erantsiaren gaineko Zergan izango duten zerga-tratamendua ezartzen da (BAO 12-12-10).
- > Bizkaiko Foru Aldundiaren 163/2012 Foru Dekretua, abenduaren 4koa, zeinaren bidez ezartzen baitira 2013ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak (BAO 12-12-11).
- > 8/2012 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 11koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia aldatzen duena (BAO 12-12-18).
- > 9/2012 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 11koa, Ondasun Higieziaren gaineko Zergaren katastro-balioak 2013. urterako eguneratzen dituena (BOB 12-12-18).
- > Bizkaiko Foru Aldundiaren 170/2012 Foru Dekretua, abenduaren 11koa, zeinaren bidez luzatu egiten baita, 2013an zehar, zorren gerorapenetan bermeak jarri beharretik salbuesteko baldintzak aldi batez aldatzen dituen 2009ko azaroaren 3ko 143/2009 Foru Dekretuak ezartzen duen araubidearen indarraldia (BAO 12-12-18).
- > 11/2012 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 18koa, balantzeak eguneratzeari buruzkoa (BAO 12-12-28).
- > Bizkaiko Foru Aldundiaren 181/2012 Foru Dekretua, abenduaren 18koa, honen bidez, lanaren etekinei aplikatu

beharreko atxikipenen portzentajeak aldatzen dira (BAO 12-12-31).

## LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZA

- > 28/2012 Errege Lege Dekretua, azaroaren 30ekoa, Gizarte Segurantzako sistema sendotzeko eta bermatzeko neurriak buruzkoa (BOE 12-12-1).
- Baliorik gabe uzten da pentsioen eguneratzea 2012ko ekitaldirako. Aurrekoa eragotzi gabe, Gizarte Segurantzaren sistemak ordaindutakoek zein Klase Pasiboetakoek ehuneko bateko iguera izango dute 2013an. Hala ere, beste ehuneko bat igoko dira hilean 1.000 euroko kopurua edo urte osoa kontuan hartuta 14.000 euroko kopurua gainditzen ez dituzten pentsio guztiak. Azken horiek, beraz, ehuneko bi igoko dira. Diru hori Gizarte Segurantzaren erreserba-funtساتik hartuko da.*
- > 13/2012 legea, abenduaren 26koa, enplegu irregularraren eta Gizarte Segurantzari egindako iruzurraren aurkakoa (BOE 12-12-27).
  - > 29/2012 Errege dekretu-legea, abenduaren 28koa, etxeko enplegatuen eta beste neurri ekonomiko eta sozialen ingurukoa (BOE 12-12-31).
  - > 1716/2012 Errege dekretua, abenduaren 28koa, prestazioen inguruan 27/2011 legea, abuztuaren 1ekoa, gartzten duena; azken hori Gizarte Segurantzaren eguneratze, egokitze eta modernizatzeari buruzkoa da (BOE 12-12-31).
  - > 245/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa, adingabeen adopzioan foru-aldundiek jarraitu beharreko jarduna arautzen duen Dekretua aldatzen duena (EAAO 12-12-3).
- ## BESTELAKOAK
- > HAP/2662/2012 Agindua, abenduaren 13koa, ordena zibileko, administrazio auzien ordenako eta lan arloko ordenako jurisdikzio-ahalaz baliatzeagatik tasaren 695 eredu (autolikidazioa) eta 696 eredu (auzia epaiketaz kanpo konpontzeagatik eta prozesu-metaketagatik itzultzeko eskaera)

onartzen dituen, eta aurkezteko lekua, modua, epeak eta prozedurak ezartzen dituen (BOE 12-12-15).

- > 12/2012 legea, abenduaren 26koa, merkataritzaren eta zerbitzu batzuen liberalizazioaren aldeko presako neurriak ezartzen dituena (BOE 12-12-27).
  - > 7/2012 lege organikoa, abenduaren 27koa, 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa aldatzen duena, hain zuzen, gardentasunaren gaian eta iruzur fiskal eta Gizarte Segurantzakoaren ingurukoan (BOE 12-12-28).
  - > 8/2012 Lege Organikoa, abenduaren 27koa, Justizia Administrazioaren aurrekontu-eraginkortasuneko neurriak ezartzen dituena eta 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa, aldatzen duena (BOE 12-12-28).
  - > 16/2012 legea, abenduaren 27koa, tributuo arloan neurri batzuk ezartzen dituena, hain zuzen, finantza publikoak sendotzeko eta jardura ekonomikoa bultzatzeko (BOE 12-12-28).
  - > 17/2012 legea, abenduaren 27koa, 2013ko Estatuaren Aurrekontu Orokorra ezartzen dituena (BOE 12-12-28).
  - > Ahaldun Nagusiaren 204/2012 Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eremuan 2013an zehar egin edo aurkeztu behar diren egintza, tramite edo errekurso guztietarako egun baliogabeak zehazten dira (BAO 12-12-13).
  - > 1717/2012 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, 2013ko lanbide arteko gutxieneko soldata ezartzen duena (BOE 12-12-31).
- ## EUROPAR BATASUNEN ZUZENBIDEA
- > 1215/2012 erregelamendua, Europar Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko abenduaren 12koa, eskumen judizialari eta zibil eta merkataritza arloko ebazpen judizialen aitortpen eta betearazpenari buruzkoa (EBAO 12-12-20).



UNA RELACIÓN PERFECTA  
WILLIAM TREVOR



narxativa  
Salamandra

Egilea:  
**William Trevor**

Itzulpena:  
Isabel Ferrer

Editorial Salamandra  
224 or.; 16,50€

## UNA RELACIÓN PERFECTA

Duela urtebete inguru, orrialde hauetan ziu-renik 2011ko liburuak onena izan zenari buruz hitz egin genuen. “Verano y amor” liburuaz ari gara, Irlandako herri txiki batean berrogeita hamarrek hamarkadan girotutako istorioa. Egilea William Trevor (Cork, 1928) zen eta gure artean nahiko ezezaguna zen, eleberri bakarra baitzeukan argitaratuta hemen. Baina laurogei urteko irlandar honi buruz hitz egiten entzun ez genuen arren, egia esan, ospe handia du. Izatez, Nobel sariak emateko azken edizioan, apustuen etxe batek Trevor ohorezko lekuan kokatu zuen saria ezagutarazi baino ordu batzuk lehenago.


Salamandra argitaletxeak “Una relación perfecta” ipuin-liburua argitaratu du orain. Hamabi ipuin zoragarriren bilduma egiten da. Istorioak ondo idatzita daude, enigmatikoak eta gozoak dira. Horietan, Trevor gai oso konplexuetan sakontzeko gai da. Damuari, leialtasunik ezari edo galerari buruz hitz egiten digu. Ipuinen batek amesgaiztoaren ukitua ere badu eta, hori dela eta, irakurri ondoren ere ezin dugu gainetik kendu. “El hijo de la modista” ipuinari buruz ari gara. Autismo arazoak zituen eta ilunetan errepideko bihurguneetan agertzen zen neskato bat auto batek zapaltzen duela kontatzen du.

Baina Trevor handi egiten da nostalgiari eta zahartzaroari buruz hitz egitean. Oso trebea da hitzez azaltzen bidea eginda dagoela dakienaren begirada triste eta jakintsua. Ipuin horiek irakurtzen genituen bitartean, guretzat oso gustukoa den beste idazle bat etorri zaigu gogora, Anne Tyler. Trevorrek, Tylerrek bezala, gizakia- ren inguru ezkutuetara iristen daki. Guk hitzez adierazi ezin ditugun sentipenak azaltzeko gai da. Kontakizun guztiak kalitate handikoak dira, baina bat, “Trampa jugando a la canasta”, bikaina da. Izatez, jatorrizko bertsoian, liburuari izena ematen dio. Trevorrek adineko bat aurkezten digu, Veneziako jatetxe batean eserita. Adineko horrek kontatzen digu bera eta bere emaztea jatetxe horretako ohiko bezeroak direla. Baina oraingoan bakarrik joan da. Emazteari emandako hitza betetzera joan da. Bidaia hori egin behar du alzheimerria izan arren. Bitxia bada ere, karta-jokoa gaixotasunak ukitu ez duen jardueretako bat da. Gaixotasunak hala nahi izan duelako, emakumea modu mekanikoan jokatze-ko gai da. Karta-jokoa iragana bizirik mantentze-ko aterpe bakarra bihurtuko da.

“El dinero envenena cuando se tiene y mata de hambre cuando se carece de él”.

Máximo Gorki

## LO QUE CUENTA ES LA ILUSIÓN



Ignacio Vidal-Folch  
Lo que cuenta es la ilusión

Egilea:  
Ignacio Vidal-Folch

Editorial Destino  
324 or.; 18,90€

Diotenez, Esenin errusiar poetak Stalini baimena eskatu zion Persiara joateko maitasun-poemak idazteko beharrezko inspirazio bila. Stalin haserretu egin zen, baina zaintzaileei agindu zien Asiako herrialderen batera engainatuta eraman zezatela eta bertan “persiar giroa” sor zezatela poetarentzat. Aste batzuk barru, Esenin poema multzo batekin itzuli zen, tartean “Shagané” poemarekin, errusiar literaturako ederrenetakoa.

Ignacio Vidal-Folchek (Bartzelona, 1956) pasadizo hori bere liburuan jaso du, eta bere esanetan, “arteak, bizitzan bezala, ilusioa da balio duena”. Pasarte hori azpimarratu dugu erreseña hasteko, liburuaren izenburua izateaz gain, liburuaren edukari buruzko zenbait giltzarri ematen dituelako. Erudizioa, ironia eta samintasuna, baina samurtasun ukitu batekin. Izan ere, samurtasuna sentitzen da Esenin zigaxoak persiarra dela uste duen emakume bati laudorioak kantatzen dizkionean, benetan ere bere auzokoa baita.

Liburu hau eguneroko bat da, eta bertan, Vidal-Folchek 2007 eta 2010 bitartean idatzitako hainbat gogoeta jaso ditu. Pentsatu apur bat. Urte haietan ekonomia krisiaren lehen zantzuak ikusten ziren. Idazlea harritu egiten da balkoitik jendea edukiontzietan gauzen bila ikusten duenean. Hitzordu batean haserretu ere egiten da Espainian 3 milioi langabe daudelako. Nork esan- zion urte batzuk geroago langabezia zifra ho-

riek izatea gustatuko litzaiukeela! Vidal-Folchen aipamen bakoitza zenbaki batekin hasten da. Liburuaren hasieran 18.801 zenbakia dago, eta amaieran, 20.008. Liburua irakurtzen nuen bitartean arduratuta egon naiz zenbaki horiek di- rela-eta, beti ez baitira korrelatiboak, eta zenbaki baten eta hurrengoaren artean jauziak baitaude. Idazleari egindako elkarrizketa batean erantzuna aurkitu nuen: “(...) bizi izan ditudan egunak dira”. Vidal-Folchek adierazi zuen oso interesgarria iru- ditiu zitzaioala egun horiek idaztea, “denboraren joana nabarmentzeko eta egunek eskuetatik ihes egiten digutela ikusteko”.

Literatura gustuko dutenek ez dute ahaztu behar eguneroko guztiak fikzio zati bat daukatela, eta hau ez da salbuespena. Eguneroko bat ona izateko, pertsonaia bat sortu behar du. Honek hori lortzen du. Hori bai, narratzailearekin bat dator. Askok Ignacio Vidal-Folch telebistatik ezagutzen genuen, “Nostromo” literatura-programaren buru izan baitzen. Orain pertsona ikasia, behatzailea eta umore txarraren puntu bat duena aurkitu dugu. Besteen bizitzak kuxkuxeatzen di- tuena. Prostitutak, lapurrak, idazleak, kirurgiala- riak edo esnobak. Azken horiekin ez du erukirik: “Operatik ateratzean, diruz ustelduta dagoen musker arrak bitxiz beteta doan musker emeari esaten dio: ni, barru-barruan, oso sentimentala naiz, erromantikoa...”



## UNA PISTOLA EN CADA MANO Cesc Gay

*Short Cuts* lana, nolabait, atzetik etorri ziren film koralen abiapuntua izan zen. Generoa aurretik ere bazegoen –generoari buruz hitz egin ahal bada–, baina bat-batean, antzeko egitura zuten filmak onddoak bezala agertzen hasi ziren. Istorio gurutzatuen ariketa berezi honek aldagai asko ditu. Hemen aztertzen ari garen filmak guztiz independenteak diren narrazioen multzo bat jorratzen du –beti bi pertsonaiaren artean– (narrazio bakoitzak film labur bat osatzeko



behar den besteko edukia du). Amaiera nahiko bortxatuaren narrazio guztiak elkartzen ahalgintzen dira, horretarako inolako beharrik egon ez arren.

Aberriko taldearen lantalde nagusia bilduta dago, Argentinako sukurtsala barne hartuta. Ordu eta erdian, guztiak ikusiko ditugu –ez da bakar bat ere

falta-: Tósar, Darín, Sbaraglia, Eduard Fernández, Candela Peña, Noriega, Cayetana Guillén, Cámara, Leonor Watling... Istorioak oso onak dira. Hasiera, bilbea eta amaiera duten istorioak, guztiak osagai erkide batekin: berrogei urtetik gorako gizonezkoen zoritxarrak, askotariko arazoak tarteko: asegabetasuna lanean, sentimenduetan, hutsa –askotan gizabanako batzuek, ahalegindu arren, ezin dutelako askoz gehiago eman.

Baliteke gizonezko protagonista gehienek ezagutzen duten patetismo horretan gehiegi arakatzea emakume asko pan-

tailara erakartzeko bitartekoa izan daiteke, bikotekideek launduta –horiek ere ordaindu behar dute.

Egia esan behar dugu: guztioi gustatzen zaigu pantailan gure erretratua ikustea, eta bide batez berez oso mugatuak diren aktoreak (hala nola Noriega) partenairearen eskuetan astinduta ikusteko aukera baduzu (berdin dio fikzioa bada), askoz hobe.

Filma bikaina da, istorio txikien gidoia kontu handiz eraikita baitago. Hispanoeszeptikoentzat oso atsegina da ikustea oso gustuko izan ez dituzten aktoreak film txarretan behin eta berriro ikusten dituztenak baino askoz hobeak direla. Agian gidoi on bat besterik ez zuten behar luzitzeko.

Leku erkideak? Badaude. Aktoreen tikak? Cámarak ezin dio bera izateari utzi.

Baina xehetasun horiek guztiak alde batera utziko ditugu, istorio bakoitzaren garapena bizkorra baita, iraupen zuzena baitu gu deserroso ez sentitzeko eta, batez ere, Espainiako zineman orain arte ikusi ez den naturaltasunarekin pentsatuta eta interpretatuta baitaude. Horrekin guztiarekin batera, eszenaratze sinplea (parke bat, auto baten barrualdea, eskailera baten burua...), interpretazioak are gehiago nabarmentzeko.

Filmak funtzionatu egiten du, nire ustez Cesc Gayk giza izaerari buruz duen ezagutza bere belaunaldiko errealizadoreen batez bestekoa baino handiagoa baita. Gomendatzekoa.

## EL EXTRAÑO O. Welles, 1948

Rara avis. Wellesek egindako film honetan gidoian ez zuen eskurik hartu, eta kasu bakarra izan zen; John Hustonek egin zuen, ezizen bat erabiliz. Izan ere, armadan zegoela



pentsatzen zuten, eta ez zinematografiaren munduan. Filma apur bat madarikatua da, eta Europa erdian urte luzez ez zuten zabaldu. Adibidez, Espainian bi hamarkada geroago estreinatu zen (eta hemen zentsurak ez du errurik).

Wellesek berak dioen bezala, filma berak ere

Hollywoodeko merkataritza-makineria osatzen zuela autostifikatzeko beharretik sortu zen, bera ere arrakasta handiko zuzendaria izan zitekeen. Lau ogerleko irabazi zituen, Wellesen inplikazioa proiektuan oso txikia izan zen, baina, hala ere, lortutako emaitzak inbertsio txikia justifikatu zuen.

Lau urte lanik egin gabe zeramatzan. Hollywoodeko mutil polita zen, Ciudadano Kane lanaren ostean, eta esperientzia garratz bat ere gairatu zuen, estudioak *-El cuarto mandamiento-* maisulana suntsitu baitzion.


Hori dela eta, zirkuitu zinematografikoaren trenera trantsizioko lan honen bidez igo zen. Horrela autoestimua berreskuratu zuen, hurrengo eztanda eragin arte *-La dama de Shanghai-*.

Wellesen aura oso handia denez, nahikoa da pantailan ikustea (minutu batzuk behar ditu pantailan agertzeko) filma automatikoki beste dimensio batean sartzeko. Ez dago ohiko plano pikaturik edo joko bisualik, beste film batzuetan bezala, baina Welles etxearen aztarnak ukitzen duen guztian eragina du (erlojuaren dorreko amaiera bikainak *"El tercer hombre"* filmeko eszena ezaguna aurreratzen du!-).

Berdin dio argudioa gutxigatik lortuta egotea, gaia ezinezkoa izatea *-Gerra Hotza* tartean dela–, hau da, nazi ohi bat Ipar Amerikako herririk galduta batean bizi da eta horren lorratzari polizia bakar batek jarraitzen dio!

Guztiak sinesgaitza dirudi, arin-arin idatzitakoa. Baina badu erritmoa, eta Wellesek ahoa zabaltzen duen guztietan eragiten duen ikusmina eragiten du.

Girotxea zoragarria da. Ogibide horretako benetako ariketa. Agian, film honi esker, gidoi txar batetik film on bat atera ezin dela dioen maxima ezeztatu edo behintzat arindu daiteke.



## VARIOS – Best of Kent Northern 1982/2012



Cd  
(Kent)  
30 abesti

Hogeita hamar urte igaro dira Kentek “For Dancers Only” argitaratu zuenetik, musika beltza albait ondoen aldarrikatzeko atera dituen hamarnaka edo ehunaka diskoetako lehenengoa. Horretarako, disko-etxeak lehen mailako materiala berreskuratu eta soularen zaleen esku jartzen du. Hori ospatzeko, omenaldi moduko hau argitaratu dute. Tema gutxi batzuk aurretik ere ezagutzen genituen, katalogoko erreferentzia batzuetan bilduta baitzeuden (baina hemen abesti horiek beste bertsio batean aurkeztu dira), eta oinarrian historiaren eta filosofiaren inguruan egindako berrikuspina den arren, abesti ezezagunak edo oso gutxi ezagutzen direnak biltzen ditu, hiru hamarkadatan eraiki duten espirituari eutsiz.

Europar merezitako errespetua irabazi dute—hemen ez horrenbeste, etxea ez baita oso ezaguna eta etxe horretako diskoak erosi nahi izanez gero aurretik erreserbatu behar baitira—, eta, berriro ere, Kenteko jendeak—Ady Croasdell buru delanena ateratzen jakin du eta musika on asko ekarri digu, *Modern soul* apur bat eta *Northern* asko, aldi klasikoenekoa, hirurogeiko hamarkadaren erdikoa. Guztia disko-etxe askotako artxiboetan hautatu dute, eta etxe horietako asko mitikoak

dira *rare soul* izenekoaren barruan. Magicians, Melba Moore, Darrow Fletcher, Little Ann, Chuck Jackson handia, Luther Ingram (“Oh Baby Don’t You Weep” abestiak berak bakarrik CDaren prezioa merezi du...), Maxine Brown... Izen garaiezina. Abestien interpretazio mailak, soinuk eta ekoizpenak, arnasa kendu eta oinak bultzatzeaz gain, musika apurka-apurka garrantzirik ez duen zerbait nola bihurtu den erakusten digu. Gogoan izan behar da bitxi hauek haien garaian argitaratu ere ez zirela egin...

CDa osatzeko, libreto osatua dator, informazio asko ematen duten barruko oharrak eta irudi gozoak, baita mota guztietako *memabilia* ere, Kenteko diskoetan ohikoa den moduan. Musikarekin batera, artisten testuingurua ere eman ohi du. Nire ustez, azkenaldian argitaratu duten bilduma onenetakoa da, bikaina *soul* musika gus-tuko dutenentzat—lehen mailako material ezezagunaren kopurua kontuan hartuta— zein musika beltza gustuko izan arren inoiz sakondu ez eta sakondu nahi dutenentzat, guztiok ezagutzen ditugun izen handiak saihestuz, nola edo hala, horrenbeste aldiz entzun ondoren kiskalitako erreferentzia bihurtu baitira.

## CAPSULA – Dreaming of The Rise and Fall of Ziggy Stardust



Cd  
(Gaztelupeko Hotsak)  
11 abesti

2011. urteko udaberrian, Bilbon Javier Corralek—Jerry— antolatzen duen Izar & Star zikloaren barruan (euskal banda ezagunek kontzertu berezien bidez disko klasiko bati edo talde giltzarri baten errepertorioari omenaldia egiten diote), Cápsula taldeak Bowieren disko mitikoa bere egin zuen, talde horren eta beste askoren musika-ibilbidean izen giltzarria baita. Han egon ginenontzat zikloko kontzerturik onenetakoa izan zen, baina hori bagenekien, hirukote horren ibilbidea eta gaitasuna ikusita. Urteek aurrera egin ahala, ibilbide bikainari eta zuzeneko biziei esker, hirukotea Bilboko eta Europako *under-ground* rockaren arloko funtsezko taldea da. Jende ospetsu askok taldea gustukoa duela esan du, hala nola David Fricke kritikariak eta Little Steve Van Zandtek. Horrek asko esaten du taldearen kalitateari buruz.

Ekitaldi bakarra izateko pentsatuta zegoenak beste batzuk ekarri zituen. Proiektuaren arrakasta ikusita, ideia garatu zuten, eta kontzertuetan Ziggyren temak gehitu ondoren, taldeak erabaki zuen merezi zuela klasikoaren inguruan zuten ikuspegia disko batean jasotzea. Emaizta entzun ondoren, diskografian nahiko produktu bitxia izango dela pentsa daiteke, aldi berezi bateko oroitzapen zehatzegia izango dela. Zein

sasoi duten aztertu ahal izateko konposizio-rik ez dagoenez, beharrezkoa da beste erronka batzuk baloratzea, eta kasu honetan, jatorrizko materialari gehitutakoa zein material horretatik jasotakoa lagungarria izan daiteke iritzia eratzeko. Cápsula taldea ez da onik atera bakarrik, bertsioak eginda lorpen absolutua eskuratu dutela esan daiteke: abestiak haien esparrura eraman dituzte, baina—garrantzitsuena dena, nahiz eta askotan ahaztu— abestien jatorrizko funtsa errespetatuta. Bowieren abestien bihurtutako sakon-duta, haien funtsari helduz, ehundurak gehitu dituzte, moldaketak egin dituzte, eta horri esker, bete-betean asmatzen zuten abestien tentsioak handitu egin zituzten.

Grabazioan New Yorkeko musikariak izan dituzte lagun (Ivan Julian, Heavy Trash, We Are Scientists), madrildarrak (Sex Museum), eta euskaldunak (Audience, Eureka Hot 3). Cápsulak apustu gogorra egin du, ordura arte irabazitako ospea arriskuan jarri. Baina talde sendoa da, ona, eta aurrera egiteko gai dela erakusten du. Egunen batean, Ziggy Stardust gogoan daukagunean, jatorrizko bertsioa alde batera utzi eta hau hartuko dugu. Hori argi dago. Baina, bitartean, izan dezagun eskura taldearen *Dreaming of* lana, asko gozatuko dugu eta.



## TOSCA

2013ko oihala jasotzeko, OLBEk Italiako erreperitorio veristako operarik esanguratsuenetakoa autatu du. Erromako Constanzi Antzokian estreinatu zuten 1900eko urtarriaren 14an, eta ikusleen artean arrakasta lortu zuen berehala. Hori dela eta, lanaren zati batzuk errepikatu behar izan zituzten eta Puccini maisuak agertokira irten behar izan zuen ikusleen txaloak jasotzeko. Kritikarien artean nolabaiteko mesfidantza eragin zuen, lanean ankerkeria osagai gehiegi ikusten baitziren.

Hiru ekitaldiko melodrama tragiko handia da, Giacomo Puccini italiar konpositore bikainaren musikarekin, eta Luigi Illica eta Giuseppe Giacosaen libretoarekin. Victorian Sardouren izen bereko dramaren oinarrituta dago, eta oinarri historiko eta politikoa aitzakia dira ekintza amaitzeko. Pertsonaien profil psikologikoak oso ondo marraztuta daude. Ekintza Erroman garatzen da 1800. urtean, Napoleonek Austria garaitzen duenean Marengoko guduan. Engainuen eta zalantzen istorioa da, eta ezerk ez dirudi zintzoa et azuzena. Maitasuna ere jelskortasunaren eraginez asaldatzen da. Cavaradossiren torturaren eraginez, Tosca Scarpia tiranoari, Erromako gizon ankerrenari, aitortuko dio azkenean (azkenean emakume gozo eta errugabe horrek hilko du) non dagoen Angelotti iheslaria. Bigarren mailako pertsonaiek ere, hala nola sakristauak eta zaindarrak, modu zantarrean jokatu dute.

Musikaren ikuspuntutik, partitura oso indartsua da. Orkestrazioan potentzia handiko efektu ugari daude, eta horiei bokalismo bortitzaren bidez erantzuten zaie. Lanak Puccinik ordura arte garatutako estiloari eusten dio, musika-diskurtsoaren jarraipena, aria batek edo bik soilik apurtzen dutena. Eszenarik hunkigarrienak hauek dira: lehen ekitaldiaren amaierako "Te Deum", eta "Vissi d'arte" (Toscarentzat) eta "E lucevan le Stelle"(Marioarentzat) ariak. Operaren bigarren ekitaldia maisulana da.

ABAO-OLBEren eta Madrilgo Teatro Realen arteko koprodukzioa Nuria Espert Kataluniako artista polifazetikoaren sormena da. 2006an Bilbon Tosca antzestu zen azken aldiaren ikusi ahal izan genuen. Elizaren botereari protagonismo handia eman zion, ze-

haz esanda Vatikanori, eszenografia erakarri, jantzi egoki eta argiztapen onaren bidez. Multzoa oso atsegin aizan zen ikusleentzat. Berezi azpimarratzekoa da lehen ekitaldiaren amaierako erlijio-ospakizuna, "Te Deum", hunkigarria benetan.


Pezoian, OLBEn debuta egiten zuen Parisko Bertrand de Billy zuzendariaren batuta oso eraginkorra izan zen Bilboko Orkestra Sinfoniko egokiaren aginduetara. Obra osoan eszenarekin oreka osasuntsua lortzen jakin zuen.

Hiru bakarleri nagusiei dagokienez, "Tosca" soprano liriko eta spintoek gustukoan duten papera da, diba nagusia da per se. Tenorren rolak opera osoko bi ariarik onenak ditu, eta baritonoak ezaugarri histrionikoak izan behar ditu. Elkarrekin eszena-erakargarritasun handiko hirukotea osatzen dute.

Lituaniako Violeta Urmana sopranoak bikain egin zuen "Floria Tosca" papera. Gaueko bi irabazle handietako bat izan zen. Eszena- eta musika-interpretazioa ia-ia bikainak izan ziren. Kantu-edertasunak hedadura handiko ahots indartsua eta agertokia betetzen zuen goi-erregistroa zituen oinarri. Partenairearen ahotsa erabat estaltzen zuen. Nabarmenezkoak izan ziren bigarren ekitaldiko "Vissi d'arte, vissi d'amore" aria (Pucciniren soprano-ariarik ezagunena agian), eta hirugarren ekitaldiko duoa Cavaradossirekin, "Senti ... l'ora é vicina".

OLBEn debuta egiten zuen Massimo Giordano tenor italiarraren "Cavaradossi" ez zen maila berean egon. Interpretazioak ez zuen transmititu, ez eszena ikuspuntutik. Hasiberriari dagokion lana egin baitzuen, ez musika-ikuspuntutik, kantu lau eta intentsitate txikikoa dituzenez ezin izan baitzuen bere rolari zegokion eginkizuna bete. Horrez gain, partiturak luzitzeko eskaintzen dizkion bi arietan ere ez zuen distirarik egin, hain zuzen ere lehenengo ekitaldiko "Recondita Armonia" eta bizitzari egiten dion agurra, "E lucevan le stelle".

Gaueko beste irabazlea OLBEn debuta egiten zuen Falk Srtuckmann Alemaniako baritonoa izan zen, "Scarpia" maltzuraren paperean. Eszena-eginkizunak maila handi aizan zuen.





Baroi dotorea baina beldurgarri eta malzurra izatea lortu zuen. Bereziki inspiratuta egon zen bigarren ekitaldian eta Toscarekin duen lehian. Ahotsari dagokionez, ahots sendoko abeslaria dela erakutsi zuen, tinbre ederrarekin eta ahotsaren igorpen onarekin. Bigarren ekitaldia bera maisulana izanda, bera bikain egon zen.

Era berean, aipagarriak izan ziren Miguel Ángel Zapater baxua “Angelotti” interpretatzen, Vincenc Esteve tenorra “Spoletta” interpretatzen, eta Valeriano Lanchas baxua “Sagrestano” interpretatzen, eszena- eta musika-eginkizun handikoa.

Bilboko Operaren Abesbatza eta Bilboko Koral Elkarteko Kontserbatorioko Abesbatzak antzezpenak arrakasta izaten lagundu zuten. Nabarmentzeko modukoak izan ziren lehen ekitaldiaren amaierako “Te Deum” abestian.

Azken finean, Tosca on bat, benetako “Mario Cavaradossi” falta zitzaiona.

### “Tosca”

**Aktoreen zerrenda:** Violeta Urmana (s); Massimo Giordano (t); Falk Struckmann (bar); M.A. Zapater (bx); Vicenc Esteve(t); Valeriano Lanchas (bx); Bilboko Operaren Abesbatza; Bilboko Koral Elkarteko Abesbatza, Bilboko Orkestra Sinfonikoa; Eszena-zuzendaritza: Nuria Espert; Musika-zuzendaritza: Bertrand de Billy; Lekua, Euskalduna Jauregiaa.



Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: [kultura@icasv-bilbao.com](mailto:kultura@icasv-bilbao.com)

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: [kultura@icasv-bilbao.com](mailto:kultura@icasv-bilbao.com)

**Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatuen  
Bazkun  
Ohoretsua**



**Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya**

# Kleos

## Un nuevo abogado ha nacido El abogado libre

**Kleos** es el primer servicio de oficina virtual en la nube, que te permite ejercer tu profesión de una forma más libre, eficiente y totalmente segura.

*Optimiza mejor tu tiempo,  
desde cualquier lugar*

Una solución que va más allá de las soluciones tradicionales de gestión. **Práctica e innovadora**, diseñada por y para abogados, que aprovecha las últimas tecnologías móviles y de Internet.

Con **Kleos**, tendrás siempre acceso a tu oficina desde cualquier dispositivo (PC, iPhone, iPad, BlackBerry y Android). Podrás organizar tus tareas y consultar de un vistazo cualquier dato de tu agenda, expedientes y contactos. Todo siempre actualizado y disponible pa-

ra poder trabajar con la mayor flexibilidad desde cualquier lugar. Se acabaron los tiempos muertos de espera en juzgados y desplazamientos.

*Sin preocupaciones  
y realmente asequible*

Trabaja sin preocuparte por las actualizaciones de software, la seguridad, etc. **Kleos lo hace por ti**, con todo incluido en una tarifa plana mensual que te permite utilizarlo desde todos tus dispositivos.

*Todo lo que necesitas*

Desde **Kleos** puedes acceder a la base de datos de **laleydigital.es** para consultar toda la legislación actualizada, la más extensa jurisprudencia o los artículos doctrinales, e incorporarlos a tus expedientes.

**Kleos** cambia tu profesión Y LA HACE MÁS FÁCIL

**CONTRATA Kleos  
Y RECIBIRÁS UN VALE PARA LA COMPRA  
DE UNA OFICINA VIRTUAL iPad**



**Kleos**  
vale por  
**80€**  
en la compra de tu pack

Codifica a los tres meses de la compra de Kleos durante el año 2013

[iPad] + [funda] + [puntero]



**Libre** de preocupaciones



**Libre** para moverse



**Libre** para elegir

Ahora, en todos  
tus dispositivos  
por una tarifa plana

